

---

Beatriz Fernández et Josu Landa

## **Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat : Corsintax**

---

### **Avertissement**

Le contenu de ce site relève de la législation française sur la propriété intellectuelle et est la propriété exclusive de l'éditeur.

Les œuvres figurant sur ce site peuvent être consultées et reproduites sur un support papier ou numérique sous réserve qu'elles soient strictement réservées à un usage soit personnel, soit scientifique ou pédagogique excluant toute exploitation commerciale. La reproduction devra obligatoirement mentionner l'éditeur, le nom de la revue, l'auteur et la référence du document.

Toute autre reproduction est interdite sauf accord préalable de l'éditeur, en dehors des cas prévus par la législation en vigueur en France.

**revues.org**

Revues.org est un portail de revues en sciences humaines et sociales développé par le Cléo, Centre pour l'édition électronique ouverte (CNRS, EHESS, UP, UAPV).

### Référence électronique

Beatriz Fernández et Josu Landa, « Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat : Corsintax », *Lapurdum* [En ligne], 13 | 2009, mis en ligne le 15 avril 2013, consulté le 16 mai 2013. URL : <http://lapurdum.revues.org/2053> ; DOI : 10.4000/lapurdum.2053

Éditeur : IKER UMR 5478  
<http://lapurdum.revues.org>  
<http://www.revues.org>

Document accessible en ligne sur : <http://lapurdum.revues.org/2053>

Ce document est le fac-similé de l'édition papier.

Fernández B. | Landa J. | IKER

# Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax<sup>1</sup>

Beatriz FERNÁNDEZ & Josu LANDA  
UPV/EHU & Ametzagaiña

Gotzon Garate gogoan

## Abstract

*In this paper, we analyze dative agreement drop, a phenomenon attested in North-Eastern varieties of Basque. More precisely, we distinguish three main settings of this syntactic variable with respect to agreement obligatoriness. In the first setting, dative agreement is optional. This setting is found with (i.) quirky dative objects in absolutive/dative alternating verbs, (ii.) dative-postpositions in postposition/dative alternating verbs, and (iii.) aspectual datives. In the second setting, dative agreement is obligatory rather than optional, and here we distinguish (iv.) dative-experiencers, (v.) dative-possessors in inalienable possession and ethical datives, and (vi.) causees. The third and last setting corresponds to datives which may never agree, that is, adjunct type datives. We'll obtain the main data from the historical dictionary Mitxelena and Sarasola's (1989-2005) Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) and the modern literature corpus Ereduzko Prosa Gaur (EPG). We'll also present a corpus search tool which retrieves syntactic information from this corpus: Corsintax.*

---

1. Lan honek asko zor die urteotan gai honen inguruan gogaide izan ditugun Pablo Albizu eta Jon Ortiz de Urbina lagunei. Baita Mark Baker maisuari ere, Rutgersen 2007an berarekin batera izandako lan saioengatik. Ibon Sarasolak hitzei eta hitzen adierei buruzko argibide asko eta asko eman dizkigu, eta Maider Bedaxagarrek zuberera edo xiberutararren adibideez. Bihoakie gure esker ona guztiei. Zortea dugu, benetan, eurak bezalako ikerkide eta lagunak izateagatik. Lanean zehar egon litezkeen okerren erantzukizuna, jakina, gurea baino ez da. Txosten hau hiruko proiektuari esker idatzi ahal izan dugu: UPV/EHUren EHU06/20, Ministerio de Ciencia e Innovación FFI2008-00240/FILO eta Agence Nationale de la Recherche ANR-07-CORP-033 ikerketa proiektuei esker hain zuzen.

### Laburpena

Lan honetan, datibo komunztaduraren galera aztertuko dugu, euskararen ipar-ekialdeko hizkeretako fenomenoa. Hala, aldagai sintaktiko honen hiru burutzapen bereiziko ditugu. Hautazko datibo komunztadura erakusten duten datiboak aztertuko ditugu lehenik: (i.) datibo-osagarri bitxiak absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan, (ii.) datibo-postposizioak datibo/postposizio alternantziadun aditzetan, eta (iii.) aspektu datiboak. Bigarrenik, ezinbesteko komunztadura duten datiboak, alegia, (iv.) datibo esperimintatzaileak (v.) jabetza besterenezineko datiboak, datibo etiko eta interes datiboak, eta (vi.) egitura arazleatiko araziak. Hirugarren eta azkenik, ezinezko komunztadura duten datiboak deskribatuko ditugu, hau da, (vii.) datibo-adjunktuak. Deskribapenerako batetik, Mitxelena eta Sarasolaren (1989-2005) *Orotariko Euskal Hiztegi*az (OEH) baliatuko gara, eta bestetik, *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) corpusaz. Corpus honetatik informazio sintaktikoa erauzteko, *Corsintax* arakatzaille sintaktikoa ere plazaratuko dugu.

### Keywords

*Dative, agreement, dative agreement, dative agreement drop, syntactic variation.*

### Gako hitzak

*Datiboa, komunztadura, datibo komunztadura, datibo komunztaduraren galera, aldakortasun sintaktikoa.*

## 0. Atarikoak

Euskalkien arteko aldakortasun sintaktikoari begiratzen diogunean, argiro banatzen ditu ipar-ekialdeko hizkerak hego-mendebaldekoetatik datibo komunztadura galerak. Aldagai sintaktiko hau, salbuespenak salbuespen (Gèze 1873, Hualde eta Ortiz de Urbina 1987, Ortiz de Urbina 1995, Fernández 1997, Albizu 2001) gutxitan aipatu eta aztertu izan da gramatikagintzan, aspaldi honetan bide berriak urratu diren arren –Etxepare eta Oihartzabal (2008a,b,c), eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2008).

Guk bide berri horiek esploratu nahian erakutsiko dugunez, ipar-ekialdeko hizkeretan, alegia, datibo komunztaduraren galera duten hizkera horietan bertan, badira datibo komunztadura beti zaintzen duten datiboak, inoiz ere zaintzen ez dutenak eta batzuetan baino zaintzen ez dutenak. Aldagai sintaktiko honek, beraz, hiru aho ditu, eta halaxe dela ikusiko dugu euskararen iragan eta orainari begiratuz. Horretarako, batetik, Mitxelena eta Sarasolaren (1989-2005) *Orotariko Euskal Hiztegi*az (OEH) baliatuko gara, eta bestetik, *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) corpusaz.

Bigarren datu iturri hori (EPG) arakatzeko erreminta ere plazaratuko dugu, corpusetatik informazio sintaktikoa erauzteko baliagarria dena: *Corsintax*. Sintaxiari lotutako aldagai askoren informazio emaile izan badaiteke ere, oraingoan datibo komunztaduraren zaintzeari eta ez zaintzeari buruzko datuetara mugatuko da emaitza.

## 1. Datibo komunztadura, hiru ahoko aldagaia

Datibo komunztadura ipar-ekialdeko hizkeretan ez da ez zoriz ez nonahi galtzen. Datibo komunztadura hizkera hauetan hiru ahoko aldagaia dela uste dugu guk: badira datibo komunztadura beti zaintzen duten datiboak (d,e,f), inoiz ere zaintzen ez dutenak (g) eta batzuetan baino zaintzen ez dutenak (a,b,c).

- (1) a. Ihesari eman nahi dire, bainan nondik eskapa (Arb *Igand* 79)
- b. Etzieztela fida amodioari! (ChantP 198)
- c. Jarraiki ziren beraz aintzina izar hari (Jnn Sbi 16)

- d. Eta Jainkoari etzaia ahantziko (Dv *Lab* 10)
- e. Mailez-mail gorphutz guzia kaskaka uspelten zaio martir berri huni (Arb *Ignd* 87)
- f. Ināziok, hitzik erran gabe, Calistori eta Caserori soineko ilhun bat har arazi zioten (Laph 85)
- g. Zuek ordean hurbildu zarete Siongo mendiari, eta Jainko biziaren hiriri, zeruko Jeru-salemeri, eta asko miletako aingeru multzoaren gana, 23. nausitasuna. (Dv Hebr 12, 22 –KG–)

Hortaz, datibo komunztadura hautazkoa ez ezik, halabeharrezkoa ere bada batzuetan, eta hori nahikoa ez eta bestetan, oso bestela, ezinezkoa ere bada.

Komunztadura inoiz baino zaintzen ez den kasuetan, aspektu datiboak (a), datibo-postposizioak datibo/postposizio alternantziadun aditzetan (b) eta datibo-osagarri bitxia aztertuko ditugu lehenik (c), neurri batean Ortiz de Urbinaren (1995) lanari jarraituz. Bigarrenik, komunztadura beti zaintzen duten datiboak deskribatuko ditugu, lehenik datibo esperimentatzaile inakusatiboak (d), bigarrenik jabetza besterenezineko datiboak, datibo etiko eta interes datiboak (e), eta hirugarrenik egitura arazleetako araziak (f). Azkenik, komunztadura inoiz ere zaintzen ez dituzten datiboetara joko dugu, alegia, *leku-datiboetara* eta, oro har, datibo-adjunktuetara (g). Lan honetan ez ditugu aztertuko postposizioek hautatzen dituzten datiboak, Etxepare & Oihartzabalek (2008c) jarraian aztertuko dituztenak.

## 2. Datibo komunztadura batzuetan baino zaintzen ez denean (edo datibo komunztaduraren hautazkotasuna)

Hiru dira datibo komunztadura batzuetan baino zaintzen ez duten datiboak, edo, nahiago bada, hautazko komunztadura erakusten dutenak: aspektu datiboak (2.1), datibo-postposizioak datibo/postposizio alternantziadun aditzetan (2.2) eta absolutibo/datibo alternantziadun aditzen datibo-osagarri bitxiak. Datibo hauen banaketa Ortiz de Urbinak (1995: 586) egindako sailkapen hirukoitzaren<sup>2</sup> garapena da neurri batean, eta bertatik abiatuko gara atal honetan.<sup>3</sup>

Hautazko komunztaduradun datiboak erakusten dituzten aditzak, salbuespenak salbuespen, datibodun inakusatiboak dira eta absolutibo-datibo hurrenkerakoak, gainera. Hauetariko batzuk dira, hain zuzen, nola edo hala gaiari buruzko literaturan aipatu izan direnak. Hori espero izatekoa da kontuan hartzen badugu halako formak direla ipar-ekialdeko hizkeretan nagusitzen direnak, hego-mendebaldekoetan datibodun inergatiboak, alegia, ergatibo-datibo konfiguraziokoak gailentzen diren bitartean (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010; Mounole 2008).

### 2.1. Aspektu datiboak: *Ari (izan), bermatu, jo, lotu, eman, hasi eta ausartu bakarti bat*

Hasi gaitezen *aspektu datiboekin*. Ortiz de Urbinak *ekintza datiboak* deritze. Hauek ulertzeko,

- 
- 2. Kasuistika zehatzik egin asmorik ez duela dio, eta azalpenaren muina ere ez dela gaineratzen du. Dena den, erakutsiko dugunez, egileak sailkapenari aitortzen diona baino balio handiagoa duelakoan gaude, nabardurak alde batera.
  - 3. Ortiz de Urbinaren sailkapen hirukoitzaren azpian dagoen hipotesia da komunztadura urratzen duten datiboak sarritan ez direla kanonikoak theta-rolari dagokionez, baldin eta kanonikotzat har daitezkeen datiboak *helburuak* edota *esperimentatzaileak* badira. Hortaz, bai lan honetan bai Hualde eta Ortiz de Urbina (1987) lan goiztiarragoan, datibo komunztadura galtzea arrazoi berari egotzen zaio, hau da, datibo ez-kanonikoak izateari theta-rolari dagokionez –ikus baita 4 oin-oharra.

dio, kontuan hartu beharra dugu inesibo postposizioaz marka daitezkeela euskaraz ekintza adierazten duten argumentuak, esate batera, *lanean ari zen suharki* adibidean, *lan* argumentuari inesiboa gaineratu zaio. *Lanean* horrek, baina, badu datibodun ordaina *–lanari ari zen suharki* (Lafitte 1979: 422)– eta ekintza da, Ortiz de Urbinaren ustez, adierazten duena *–hortik ematen dien ekintza datibo deitura*<sup>4</sup>. Guk ez dugu hemen ukatuko ekintza datiboak direnik bertara dakartzagunak, baina *ari (izan)* bera eta ondoren aztertuko ditugunak aspektu aditzak direla pentsatzen dugu, aspektu progresibodunak *–ari (izan), jo* baita ziur aski *bermatu* ere– eta aspektu inkoatibodunak *–eman eta lotu–*, eta hortaz aditz hauekin agertzen diren datiboak *aspektu datiboak* direla uste dugu. Ildo honetan, gehiago lerratzen gara Etxepare & Oihartzabalen (2008a) uster, Ortiz de Urbinarengandik apur bat bereziz.

Halakoa datiboak *bermatu, ausartu, jo* eta *lothu* aditzekin aurki daitezkeela dio Ortiz de Urbinak. Ikus ditzagun adibide batzuk jarraian:

- (2) a. Laborariak bere ahal guziaz bermatu behar du lanari (Dv *Lab* 389)
- b. Ni ez naiz ausartatzen lan horri (Dv *Lab* 339)
- c. Plazan hazkarki jo dezala pilotari (Arb *Igand* 141)
- d. Biharamunetik erlea lanari lotzen da (Dv *Lab* 297)

Datibo hauetatik lehena *bermatu* aditzarekin ageri da (a), eta salbuespena da Duvoisinien hizkeran bertan ere. Egia esan OEH hiztegia arakatu eta gero, ez dugu halako aspektu datibo gehiago aurkitu *bermatu* aditzarekin. Hori hiztegiaren beraren ezaugarriengatik izan daiteke eta ez horrenbeste, *bermatu* aditzak halakoxe agerpenik ez izateagatik. Baina ez dirudi: OEHTik aparte ere, adibide bakanak baino ez baitditugu aurkitu, eta osagarria datibodun nominalizazioa dutenak, hala nola, ondokoa<sup>5</sup>, *Herria* osoan bakarra:

- (3) Euskal berezitasunaren beiratzeari bermatzen dela erran du bainan bortizkeria gaingainetik baztertuz (*Herria*, Jean Arotcarena, 2003-11-27, 4 –EPG–)

Entzulea ohartuko zenez, nominaliziodun osagarria da *bermatuk* adibidean erakusten duena. Oso litekeena da Leonen ondokoa ere, nominalizaioduna ikusiko denez, halakoxe aspektu datibo izatea.

- (4) Nahigabeak jasan behar ditzuzunaz geroz eta ororen buruan hil, *–jasaiteari bermatzen bazira eta ontsa hiltzeari jartzen, laster hobetuko zira eta bakea kausituko duzu* (Leon *Imit* II 12, 12 –KG–)

Egia esan, inkoatiboa ala progresiboa ote den zalantzak ditugu, nahiz eta progresiboa dirudien<sup>6</sup>.

4. Izan ere, adibide hau bera da Hualde eta Ortiz de Urbinak (1987: 433) aipatzen dutena *ari izan* egituraren gaineko *lanean*, eta Lafitterena bezalako adibidean, datibo argumentua izanagatik ere, aditz laguntzailean komunztadura zaintzen ez dela oharturik, horren arrazoa datiboari ezartzen zaion argumentuaren theta-rolari egotzen diote: datibo argumentuek *helburu* edota *onuradun* theta-rola izaten dute, baina Lafitteren adibidean, datiboak ez du ez *helburu* ezta *onuradun* theta-rolik, eta horrek azaltzen du, euren iritziz, zergatik ez duen komunztadurarik eragiten aditz laguntzailean, eta era berean, zergatik txandakatu daitekeen antzeko egituretan arrunta den inesiboarekin *–lanean ari zen suharki*.

5. Halakoa da Etxepare & Oihartzabalen (2008a) *Horren hedatzeari bermatu zen* adibidea ere.

6. Testuzaleek esaldi beraren hiru bertsio erka ditzakete erabakitzeko. Leonenarekin (1929), Pouvreuren (1669) edota Xurrioren (1720) ondokoak, hurrenez hurren, erka daitezke: a) *Iarten bazara egiten behar duzunaren egiten, erran nahi da, pairatzen eta zure buruari hiltzen, sarri hobeki izanen zara eta bakea edirenen duzu*, eta b) *Ematen bazare behar zaren bezala pairatzeko, eta hiltzeko estatuan, kausituko zare berehala hobeki, eta ardietsiko duzu bihotzeko bakea*. Progresiboa, ezta? Hala dirudi.

*Ausartu* aditza (b) misterioitsuagoa da, Duvoisinin hizkeran ere ez da behin baino ageri, eta *hapax sintaktiko* bat dirudi, ez baitugu halako beste datiborik aurkitu ez OEHN, ez EPGn ez *Klasikoen Gordailua* (KG) osorik arakatuta ere.

*Jo* aditza da zerrendan hurrena. Arbelbideren goiko adibidean, *ekinen* antzeko *jo* aditza dugu, eta gutxitxo dira halakoak OEHN (X: 237)<sup>7</sup>. Osagarria zehazten dutenen artean, *Eta jo biak lanari* (Barb *Leg* 128) datiboduna ez ezik, *Lanian gogor jo zuten* (EusJok 122) eta *Eskualdun haur lagunak, jo bethi pilotan!* (Ox 181) inesibodunak ere jasotzen dira. Inesiboaren eta datiboaren arteko alternantzia ikus daiteke hemen ere osagarriaren markapenean. Etxepare & Oihartzabalek (2008a) ildo bereko *To Ferrando, jozak lanari* adibidea dakarte. Duvoisinek honelako *ihesari* osagarriak dauzka komunztadurarik gabe:

(5) Aingeruaren oihura *ihesari jo* dute populuek, eta zure altxatzeari alde orotara itzuri<sup>8</sup> dira jendaiaik (Dv Is 33, 3 –KG–)

*Lotu* aditzak, Ortiz de Urbinaren zerrendan azkenak, nahi beste adibide eskaintzen dizkigu datiboarekin batera, eta horietatik asko eta asko datibo komunztadurarik gabeak dira gainera<sup>9</sup>. *Lotu* aditzaren beste adibide batzuk dira ondokoak, komunztadurarik gabeak guztiak.

- (6) a. *Eta bi gazteak lothu ziren bideari* (Zerb *LxtS* 61)  
 b. *Berehala lehen urratsei lotu ziren* (HU *Aurp* 104s)  
 c. *Lotzen dire berriz janari* (HU *Zez* 131)  
 d. *Bertze solas bati lotu ziren* (StPierre 21)  
 e. *Bi bozetan lot gaiten zure kantu horri* (Iratz 85)

Horrek ez du esan nahi, jakina, datibo komunztaduradunik ez dagoenik. Ikusi bestela:

- (7) a. *Lot zakizko Jainkoak manatzen darotzun lanari* (Ch I 20, 8)  
 b. *Azkenean, lothu zitzaion bideari, harturik berekin bere emaztea* (Lg I 237)  
 c. *Eta fite zaio ihesari lotzen* (Gy 127)  
 d. *Gazteak, haatik, berriz ere lotu zaizkio borrokari* (Mde Pr 286)

Irakurleak ikusiko zuenez, hemen osagarria ez da nahitaez *lanari*, Ortiz de Urbinak jasotako adibideetan nagusitzen dena<sup>10</sup>, ez bada *bideari*, *urratsei*, *janari* eta abar. *Jan*, *solas*, *kantu*, *ihes*, *borroka* bezalakoetan, ekintza argumentuak ditugula dirudi, baina hori baino areago, aspektu kutsua da hemen datiboari antzematen dioguna, goian esan dugun bezala, ekintzaren hasiera baita adierazten dena, hau da, aspektu inkoatiboa. Kontuan izan *lotu* aditzaren forma iragangaitza dela hemen aipa-

7. Ortiz de Urbinak dakarren adibidea *jo dezagun bihotzez lanari* da, baina erratu esanguratsu bat dago bertan, jatorrizko testuak *jo dezogun bihotzez lanari* (Dv *Lab* 31) baitio, ez *jo dezagun*. *Dezogun* –datibo komunztaduraduna– izaki liburuak berez dakarrena, eta ez *dezagun* –datibo komunztadurarik gabea– aspektu datibotzat har dezakegu, jakina, baina ez datibo komunztadura urratzen duen datibotzat. *Jo dezogun lanari* horren erakusgarri gehiago ditu, gainera, *Lab* 79 eta *Neh* 4, 21.

8. *Itzuri* (Escapar, huir; evitar, escapar a; librarse, salvarse OEH IX:751) ere datibo komunztadurarik gabea da, ikusten denez.

9. Ortiz de Urbinak aipatzen dituen zazpi adibideetatik lautan jasotzen da *lotu* aditza. Esanguratsua da hori.

10. Mintzagai dugun Ortiz de Urbinaren lanean (1995: 586) aipatzen diren zazpi adibideetatik bostetan *lan* izena ageri da.

gai duguna, *ekinen* esanahitik<sup>11</sup> gertu dagoena<sup>12</sup>.

Antzera esan genezake *eman* aditzaz ere: *ekin* eta *lotu* aditzen esanahia ere biltzen du, aspektu inkoatiboa zehazten du eta datibo komunztadura nabarmen galtzen duten horietakoa da bere datibo osagarria<sup>13</sup>. Gogoratu Pikabeak (1993: 113) dioen moduan, *eman*, *lotu* bezala –baita *jarraiki* ere, geroago ikusiko dugunez–, tradizioz datiboa erakusten duten aditzetako bat dela, eta orobat, datibo komunztadura zaindu ala urratzeko joeran aldakortasun gehien erakusten dutenetakoa. Ondokoak datibo komunztadurarikgabeak dira:

- (8) a. Ihesari eman nahi dire, bainan nondik eskapa (Arb *Igand* 79)
- b. Eman zaite Mariaren debozioneari (Marll 31)
- c. Jendaki guzia tzarkeriari eman zen (Zerb IxtS 13)
- Eta datibo komunztaduradunak, berriz, hauek:
- (9) a. Ikharatu zituzten filistindarrak non eman baitzitzazkon ihesari (Lg I 26)
- b. Gogoetari ematen zaizko (Mih 71)

Kontuan izan *eman* aditzak ere, *lothu* aditzak bezalaxe, badituela antzeko inesibodun adibi-deak, hala nola, ondoko hauek:

- (10) a. Ardiak deskantsuan mendian utzirik, Bidian emaiten niz makila harturik (Etcham 194)
- b. Hango oihanetan lanean eman zen (Lf *ELit* 254 –KG–)
- c. Lanean loth gaiten, gu gure partetik, Eta listorrek beretik (Gy 190)
- d. (Botoila pausatzen du tonba baten gainean, eta haren aintzinean belauniko, otoitzean lotzen zaio) Alo, idek-hadi, idek, gaizoa (Larz *Bordaxuri* 55 –KG–)

Hau da, gorago beste aspektu aditzekin ikusi duguna erakusten dute baita *eman* edota *lotu* aditzek ere, aspektu datiboak direlako hipotesia indartuz. Larzabalen adibidea (d), bestalde, benetan harrigarria da gure begietara –eta hala behar luke komunztaduraz ardura duen edozeinentzat: inesibodun osagarria dakar *lotu* aditzak –halako aditzetan espero izatekoa dena datiboarekin al-ternantzia–, baina hona hemen gure harriduraren zergatia: datibo komunztaduraduna da inesibo osagarria! Ez dugu esango, momentuz, ezer orokortu daitekeenik honetatik, baina halako datibo komunztaduradun inesiboak jasoak dituzte Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) antzeko egitu-

11. *Lotu* (L, B, S) ‘Emprender, ponerse a, darle a’ esanahiaz jasotzen du OEH-k (XI: 722).

12. Ez da hau *loturen* forma iragangaitz bakarra. Bada zentzazio edota gaixotasunei dagokien ‘se prendre, se contracter’ adiera. Bertan datibo komunztadura galtzen ez dela dirudien arren, adibideek zalantza sortzen dizkigute bi arrazoiengatik. Batetik, adibide gehienetan, datibo argumentua ez dago agerian. Hortaz, datibo komunztadura zaintzea datibo argumentua bera ez agertzeari egotz dakioke, esate batera *Ifernuko errabia bat lothuren zeraio* (Dv *Led* 192) adibidean. Bestetik, datibo argumentua agerian dagoen adibideak XIX. mendea baino lehenagokoak dira, esate batera, *Eta arima guziari beldurtasun lot zekion* (Lç Act 2, 43), datibo komunztaduraren galera lapurterara zabaldu baino lehenagokoak alegia.

13. Paradoxikoki, ez dirudi *ekin* adieraz eta formaz horren antzekoa izanik, datibo komunztadura galtzen dutenen artean aipa daitekeenik –Pikabeak ez du aipatzen eta, oro har, ez da bere aipamenik gaia ukitzen duten lanetan ere. Geuk ere OEHri begira ez dugu aurkitu *ekin* aditzarekin galeraren aztarnarik. Gogoan izan, *ekinek* forma sintetikoak baino ez zituela erakusten XVI. mendean, eta subjunktibo eta aginterazkoak zirela, hain zuzen, lehen testigantzetan ageri ziren haiek. Forma sintetikoak izanik historikoki nagusitzen direnak, ez dirudi harrigarria denik datibo komunztadura galeraren aztarnarik erakusten ez duten aditzetakoak izatea. Tamalez, *ekin* aditzaz dioguna ezin daiteke aditz guztiez esan. *Jarraiki* aditzak, esate batera, forma sintetikoak baditu historikoki, baina datibo komunztadura galera nabarmena erakusten du, ondoren erakutsiko dugunez.

retan, hala nola, *ekin eiozu ebagiten* (Ur (V) Apoc 14, 15) edota *ari izanen* oso gertuko *margozten daragoiola* (Enb 61) edota *iolasean daragoionean* (Ibiñ Virgil 109). Azken biotan, aditzaren forma sintetikoan ihartutako datibo komunztadura ez ote dugun pentsa genezake, baina ez dirudi berdin esan daitekeenik ez Uriarteren adibideaz ez Larzabalenaz. Bego momentuz.

Ildo nagusira itzulita ikusten denez, bi aspektuak, progresiboa –*ari (izan)*, *jo* eta *bermatu*– eta inkoatiboa –*lotu* eta *eman*– erakutsi ditugu adibideotan. Bada aspektu inkoatiboa garbiri erakusten duen beste predikaturik, *hasi* alegia, Lafittek bere gramatikan (1979: 422) dioenez, datiboaz lagundurik agertzen dena<sup>14</sup>:

(11) Hasi zen bere sailari

*Hasi* aditzarekin, bi adibide besterik ez dugu topatu:

(12) a. Hortzez eta haginez hasi nintzen lan horri (Zerb *Bahnar* 24. kap, *Eskualduna*, 1935-08-30, 4 –KG–)

b. Huna nolaz hasi zen buru-lan huni: Euskal-Herrian, urte heietan, bazen asko solas eta kalapita ere, batzu Ameriketarat joaitearen alde, bertze batzu kontra (Larz *Hiru* 233 –KG–)

Laburbilduz, datibo komunztadura urratzeko joera dutela erakusten dute aspektu aditz hauen guztien datiboek. Inesiboarekin alternantzian agertzen diren datiboak dira guztiak. Aditz hauek, baita ziur aski *ausartuk* berak ere bere bakardadean, ederto erakusten dute aspektu aditzak direla. *Ari (izan)*, *bermatu*, *jo* eta *lotu* aditzen zerrendara, *eman* eta *hasi* ere gaineratu daitezke. Geroago ikusiko duzunez, oso litekeena da *jarraiki* aditzak ere aspektu progresibodunetako bat ere izatea.

## 2.2. Datibo-postposizioak datibo/postposizio alternantziadun predikatuetan

Goazen, bada, aurrera. Ortiz de Urbinak bereizten duen bigarren datibo ez-kanonikoen saila *zeharkako datiboek* osatzen dute, bere deitura erabiliz<sup>15</sup>. Datibo hauek, dioenez, beste euskalkietan zehar kasuen edota, nahiago bada, postposizioen bitartez adierazten dira, eta hortik ematen die deitura. Guk *datibo-postposizioak* deituko diegu deitura argiagoa delakoan, areago kontuan hartzen badugu nagusiki halako datiboak direla, hain zuzen, Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010), datibo/postposizio alternantziadun aditzak deriztetenekin agertzen diren datiboak.

Sail honetan *ohartu* aditza da Ortiz de Urbinak aipatzen duen ia bakarra, nahiz eta *sinestu* eta *urrikaldu* ere harira dakartzan, geroago ikusiko dugunez. Fernández eta Ortiz de Urbinaren sailkapenean (2010), *ohartu* eta *urrikaldu* datibo/postposizio alternantzia erakusten duten aditz horietakoak dira. Ikus dezagun bada, datibo komunztadurarekin nola jokatzten duten aditzok adibideen bitartez. Datibo komunztadurarik gabeak dira ondokoak, Duvoisinena biak.

(13) a. Gauza horri ohartu direnak (Dv *Lab* 80)

b. Ez nintzen horri ohartzen (Dv *Lab* 369)

Gogoratu, dena den, XIX. mendea baino lehenagoko autore lapurtarrek ondo zaintzen dutela datibo komunztadura, Leizarragak berak adibidez:

(14) Eta bere buruari ohart<sup>16</sup> zekionean, erran zezan (Lç 15, 17)

14. Hualde eta Ortiz de Urbinaren lanean (1987: 433) ere aipatzen da bera. Aldiz, Etxepare eta Oihartzabalek (2008a) ere ez dute aipatzen.

15. Gogoan izan Duvoisinen *Lab* liburua lanetik jasotako datiboak darabiltzala bere sailkapenerako.

16. *Bere buruari ohartu* esapideak “recobrar el conocimiento” esanahia du, OEHK (XIII: 10) dakarrenez.



Orain datozenak, berriz, XIX. mendeko lapurteraren testigantzak dira, datibo komunztadura urratzen dutenak (a-c), nahiz eta zaintzen dutenak ere badiren (d):

- (15) a. Belhauniko dagolarik, ohartzen da mendi harritsu bati (Lp 40)
- b. Ohartu zen munstro irudi bati (*MarII* 70)
- c. Ohart gaiten berehala deputatuen hamabi ehun nombre horri (Elsb *Fram* 58)
- d. Huntan ohart gaizkon erran xaharrari (Zby 765)

Eta bietara aurki daitezke egile beraren testuetan ere:

- (16) a. Ohartu zen behin jendea lehen inarros aldiari (HU *Zez* 14)
- b. Nola ohart dakioken zakur errabiatuari? (HU *Gontz* 276 –KG–)

*Urrikaldu* edota *sinestu* aditzak ere *oharturekin* batera sailka daitezkeela dio Ortiz de Urbinak, goian esan dugunez. Izan gogoan *urrikaldu* eta *ohartu* aditz bietan intrumental berrizaleak jatorrizko datiboa ordezkatu duela historian zehar. *Urrikalduri* dagokionez, ez dirudi ugari direnik datibo komunztadurarik gabeko adibideak, ez behintzat, OEHk (XV: 859-860) edota Pikabeak (1993: 146-147) dakartzatenak kontuan izanda. Horrek ez du esan nahi datibo komunztadura aukeran galdu ezin daitekeenik, jakina. Ortiz de Urbinak dakarren Duvoisinin *urrikal zaite niri*<sup>17</sup> adibideaz gain, hauek (a,b) ere baditugu, ezagunak zaizkigun datibo komunztaduradunekin (c,d) konpara daitezkeenak:

- (17) a. Aingeruei hagitz zaizte arimak urrikaltzen (EZ *Man* I 123)
- b. Jauna, urrikal zite / gure manerari (Bordel 43)
- c. Othoi urrikal nakizu (Laph 209)
- d. Urrikal zakizkigu, Jesus (Dh 80)

*Sinestu* aditzak, bestalde, *urrikaldu* edota *ohartuk* ez bezala, ez dirudi berez datiboa erakusten duenik, ez, behintzat, Duvoisinek darabilen adieran<sup>18</sup>:

- (18) a. Sinesten dut Jainko bati, Aita guziz botheretsuari, zeru lurren Egileari (Dv *LEd* 8)

Ez gara atrebizten beste hapax sintaktiko bat dela esaten, baina ez bada ez zaio oso urruti ibiliko. Guk behintzat ez dugu beste adibiderik topatu ez KGn ez EPGn.

Datibo-postposizio sorta honetan gaineratu genitzake dudarik gabe baita Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010) datibo/postposizio alternantziadun aditzen artean sailkatu dituzten beste batzuk ere, hala nola, *fidatu*, *bermatu* edota *pentsatu*<sup>19</sup>. Gogoratu aditz hauetan, osagarriak jasotzen duen jatorrizko forma postposizioduna dela –inesiboa, adibidez, *fidatu* aditzerako eta inesiboa ez ezik, instrumentala edo adlatiboa ere *pentsatu* aditzerako–, eta postposizio hauek ordezkatzeko dituen datibo berritzailea dela –historikoki esan nahi dugu– osagarria markatzen hasiko dena. Aditz haue-tatik edozeinek erakusten ditu datibo komunztadura galeraren, edo nahiago bada, hautazkotasunaren aztarnak. Ez dira gutxi, adibidez, *fidatuk* erakusten dituenak, nahiz eta kontuan hartu behar den aditz honekin batera datorren osagarria datiboaz markatzeko joera berritzailea denez, oro har,

17. Deigarria da: Duvoisinin *urrikal zaite niri* adibideak (a) *urrikal zakizkit niri* eta (b) *urrikal zaite nitaz* (Dv *LEd* 276) perpausen erdibidean sortutakoa dirudi, (a)-n bezala, *niri* datibo sintagma erakusten duelako, nahiz eta datibo komunztadurarik zaintzen ez duen, *nitaz* postposizioak (b), jakina, zaintzen ez duen bezala.

18. Ez du horrek esan nahi (*zuri*) *sinesten dizut* esan ezin daitekeenik, “creer a alguien” adieran. Adiera honetan, absolutibo/datibo alternantzia duen aditza da *sinestu*. Euskalkien araberako alternantzia da bera.

19. *Trebatu* aditzak are agerpen gutxiago dauka datibo osagarriarekin, beste aditz hauek baino. Erakusgarri horietan *trebatu* aditza forma jokatu gabean agertzen denez OEHn, ezin daiteke jakin komunztadurara begira nola jokatzen duen. Gogoan izateko moduko aditza da.

ez direla horrenbeste datibo osagarria erakusten duten adibideak, OEHn behintzat:

- (19) a. Iinkoari nahi ezpazira fidatu, nori nahi zira fidatu? (Tt *Arima* 122)  
 b. Ez gaitela, to, fida / lausenguari (Zby RIEV 1908, 759)  
 c. Holako jender ez da sekulan fidatu behar (Laph 82)  
 d. Etzieztela fida amodioari! (ChantP 198)

Berriro ere, datibo komunztadurarik erakusten ez duten adibideen ondoan, komunztaduradunak ere aurkituko ditu irakurleak:

- (20) a. Ene beharretan eziñ bertze nihori fida nakioke zuri baizen (Ch III 59)  
 b. Miriku bati fidatzen gaizko osasunaz (Dh 235)  
 c. Fida hakit arras niri (Gy 42)

*Bermatu* ere datibo/posposizio alternantziadun aditza da –ez da hau gure lehengo *bermatu* aspektu aditza. *Fidatu* aditzarekin bezalatsu, inesiboa da datiboak ordezkatu duena. Ondoko adibide hauek guztiak datibo komunztadurarik gabeak dira:

- (21) a. Ama Jainkoarenak, / Saragozen agertu zenak, / Bere Pilharra utzi dauku, / Hari berma gaiten denak (Zby RIEV 1999, 399)  
 b. Pasaiaitik etorri zaiku berria Josefa Izagirre [...] bere balkoinerat joanik, han bermatu dela barandari; baina barkalunek amor eman dute eta andre gaixoa erori da (Herr 1962-6-21, 3)  
 c. Erranez ordreari ginitezen berma, / bertzela etzaikela zarurat arima (Xa *Odol* 133)  
 d. [Dassance jauna] behin baino gehiagotan Etchepare adixkidiari bermatu dela, haren argiez, lumaz eta laguntzaz baliatuz (Lf *ELit* 281)

Kontuan hartzeko moduko aditza da hau, datibodun adibide guztien artean –beti ere perpaus jokatuak badira–, bakar batean baino ez delako datibo komunztadura zaintzen:

(22) Neskabila puntzelez, aldiz, / bermatzen nitaizazie, / zeren puntzela direla orok / zin eginen deizie (AstLas 14)

Adibide honetan, “fidatu, uste ona izan” da aditzaren adiera.

*Pentsatu* aditzaz ere antzera esan daiteke. Datiboak osagarria markatzeko dakarren berritasuna kontuan hartuta, ez dira asko tradizioetik jaso daitezkeen erakusgarriak. Hala ere, hauetarik batzuk datibo komunztadura gabeak dira (a,b) eta besteak datibo komunztaduradunak (c,d).

- (23) a. Berehala, ura ikustearekin, Peyori pentsatu zuen (JEtchep 95 –KG–)  
 b. Lagun batzueri pentsatzen zuen (JEtchep 65 –KG–)  
 c. Ez zioten deus bertzeri pentsatzen (Jaur 187)  
 d. ...gal irriskuan nadukanari asko pentsatzen niola (Xa *Odol* 329)

Ikusi dugunez, datibo-postposizioek berezko lekua betetzen dute datibo komunztadura urratzeko joeran. Ortiz de Urbinak aipatzen dituen *ohartu* eta *urrikaldu* aditzekin batera –besterik da *sinestu*–, *fidatu*, *bermatu* eta *pentsatu* ere aipa daitezke, datibo/postposizio alternantziadun aditzak guztiak. Ez da harrigarria halako datibo-postposizioek datibo komunztadura sarri askotan ez zaintzea, postposizioek ez baitute, definizioz, komunztadurarik eragiten –kontrakoak dirudi harrigarriagoa, datibo komunztadura zaintzeak, alegia.

### 2.3. Datibo-osagarri bitxiak: *begiratu*, *jarraiki*, *segitu* eta *jazarri* adibide

Jo dezagun orain Ortiz de Urbinak hirugarren eta azkenik bereizten duen datibo sailera. *Quirky case* edo *kasu bitxia* deritzana da hirugarren honetan jasotzen duena. Hemen bi dira aipatzen dituen aditzak, *jarraiki* eta *begiratu*. Fernándezek (2008) eta Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010) *datibo-osagarri bitxiak* deritzete hauei, eta nagusiki absolutibo/datibo alternantziadun aditzekin

aurkitzen dira –hala da, behintzat, *begiratu*, *jarraiki*, *segitu* eta *jazarri* aditzen kasuan.

*Begiratu* aditzeko adibideak dituzue hauek, batzuk datibo komunztadurarik gabeak eta besteak komunztaduradunak:

- (24) a. Begiraturen naiz bethi zure Ebanjelioko hitzei (Dv *LEd* 8)  
 b. Eta ari huni, behar bezala, begiraten ez banintzan, nire onari bedere begiratu behar nioen (Dv *LEd* 8)  
 c. Nola horri ez natzaio begiratu? (Dv *LEd* 168)  
 d. Begira, begira zazu ongi asturu gaitz hunen handiari (Dv *LEd* 212)

Adibide guztiak Duvoisininak dira, oraingo honetan *Liburu ederra* (*LEd*) lanetik jasoak. Duvoisinin idiolektokoa dirudi *begiraturen* konfigurazio datibodun inakusatiboak (b,c,d) –ikus OEH IV: 464)–, nahiz eta konfigurazio datibodun inergatiboaren erakusgarririk ere baduen (a).

Gutxi dira bere lanetatik aparte aurkitu ditugunak. Hona hemen, pare bat:

- (25) a. Othoitz onei begiraten zaizte, launa (*CantIzp*)<sup>20</sup>  
 b. Behatu zuen erreposki deputatu guzier (Elsb *Fram* 107)

Gogoratu *begiratu* aditzaren testigantzarik ez dagoela zubereraz, eta lapurteraz ere ez duela askorik; behe-nafarreraz, azkenik badira bere testigantzak zenbait idazlerengan (OEH IV: 464). Horrek halako datiboak aurkitzeko aukerak zeharo murrizten ditu.

*Begiratu* aditzaz esan berri dugunak ez du zerikusi handirik *jarraiki* aditzaz esan daitekeenarekin. Lehenengo eta behin, asko dira aditzaren beraren testigantzak eta asko, halaber, komunztadura galeraren aztarnak erakusten dituztenak. *Jarraiki* aditzaz ari garela, sortzen zaigun galdera da ea ez ote dugun datibo komunztadura galerarako joera adiera batzuetan bereziki. Diogun hau oso tentu handiz hartu behar du irakurleak, lehenengo eta behin, gu ez garelako hiztegi kontuetan adituak eta ez dagokigulako, hortaz, adierez hitz egitea. Nolanahi ere, datibo komunztadurarik gabeko testigantza esanguratsuak daude, ‘ocuparse de, dedicarse a’ adieran (OEH X: 111), eta, espero bezala, ez dira gutxi Duvoisininak berarenak ere<sup>21</sup>.

- (26) a. Jarraikiko zaizte humiltasunari, obedienciaziari, sinpletasunari (SP *Phil* 155)  
 b. Jarraikiko naiz zure Seme maitearen manamendu xoilei (Brtc 75)  
 c. Asko gizon argitu jarraiki izan dira oihan landatzei (Dv *Lab* 347)  
 d. Zure Aitaren xedeari jarraiki zinen (Dv *LEd* 157)  
 e. Agintzen darotzut bi urthe osoz zure eskolari jarraikiko naizela (Laph 71)  
 f. Erretratuz gero beti jarraiki dela meza horri (HU *Aurp* 184)

Esan gabe doa adiera berean, datibo komunztaduradunak ere aurki ditzakegula. Hona pare bat adibide baino ez:

- (27) a. Zarraizko othoitzari, zarrizkote obra onei (He *Gudu* 125)  
 b. Edateko ohitzari darraiona luzesko / haren esklabo dagola (Gy 103)

Adiera honetan, irakurlea ohartuko zenez, hurbil samar dago *jarraiki* goian aztertu ditugun aspektu progresiboko aditzetatik. Hortaz, neurri handi batean, adiera honetako *jarraiki* aditzak galerarako joera erakustea espero izatekoa da. Komunztadura zaintzen dutenen artean, dena den,

20. Berau ere, Duvoisinin erakusgarriez gain, salbuespena da konfigurazio inakusatibo datibodunaren hautaketan.

21. Ortiz de Urbina jasotzen dituen *Ardiari ongi nahi da jarraiki* (Dv *Lab* 269) *Ene solasari jarraik zaite beraz ongi* (Dv *Lab* 311) eta *Artzainak arthoski jarraitu behar du erditzekotan diren ardiei, eta antxuei berreziki* (Dv *Lab* 272) adibideak ere era honetakoak direla esango genuke.

nabaria da forma sintetikoan agerpena, adibideok ere erakusten dutenez –ikus Ortiz de Urbina (1995) forma sintetikoan eta analitikoan arteko ezberdintasunetarako.

Susmoa dugu, esate batera, “seguir (a), imitar (a), ir detrás de algiuen o de algo; ser partidario de algiuen o de algo” adiera hutsean, gehiago zaintzen dela datibo komuntzadura, goian eman dugun beste adieran baino.

- (28) a. Bederatzi urte hautan jarraiki zauzkigun irakurtzailetarik zenbeiti (HU *Ze* 80)
- b. Ezen buraso dohatsu hek ere jarraiki zitzaizkon beren haurrari (Jnn *SBi* 69)
- c. Ene borondatea berraikio zureari (SP *Imit* III, 15, 1)

Ez du horrek esan nahi datibo komuntzadura adiera honetan ere urratzen ez denik:

- (29) a. Jarraiki ziren beraz aintzina izar hari (Jnn *SBi* 16)
- b. Eni jarraikitzen dena eztabila ulhünpian (Mst I 1, 1)
- c. Hitzemaiten dio haren banderari jarraikiko dela, haren erran guzier behatuko dela (Laph 23)

Duvoisinek bietara erakusten du aditza baita adiera honetan ere, espero izatekoa dena, bestalde:

- (30) a. Dohatsuak bertze emakume, Jaunari nigarrez jarraiki zirenak (Dv *LEd* 13)
- b. Zuri, nere Jesus ona, behar natzaitzu jarraiki (Dv *LEd* 57)

Honaino, beraz, Ortiz de Urbina aipatzen dituen bi aditez esan dezakeguna. Gogoratu absolutibo/datibo alternantziadun aditzak direla biak (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010), adieraren arabera alternantziaduna lehena eta alternantzia osokoa bigarrena. Sorta berekoa da baita *segitu* aditza ere, adibideak asko ez diren arren, eta direnak, ez nahi genituzkeen bezain argiak (b,c):

- (31) a. Zertako etziñen haren begirakortasunari segitzen? Baiñan ahalke gaixto batek eta bale-norioak ezarri zituzte zorigaitz hortan (Dv *Telem* 157 –KG–)
- b. Zuk segi-azu zureari (Lar *PaperMen* 216–KG–).
- c. Bertzeak bezain airos ez naiteke segi lagunerari (Elzb *Po* 216)
- d. Nola birundan arbolari / dan segitzen itzala (Elzb *Po* 200)<sup>22</sup>

*Segituren* (b) eta (c) adibideetan, agintera eta ahalera agertzen zaizkigu, hurrenez hurren. Datibo komuntzadura galera, predikatuei euri ez ezik, moduari ere egotz dakiokela uste dugu guk, subjuntibo, ahalera eta aginterazko formetan nabarmenagoak baitira galeraren aztarnak (Fernández eta Ortiz de Urbina 2008). Bestalde, (d) adibidea hitz neurtukoia izateak izan lezake zerikusia komuntzadura galeran. Kontuz hartu beharra dago beraz.

Datibo-osagarri bitxiko aditzat har daiteke, gure ustez, baita *jazarri* ere. Absolutibo/datibo alternantziadun aditza da, eta alternantzia hori adieren arabera da, *begiraturena* bezala, Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) ustez. Datibo komuntzaduraren hautazkotasun nabarmena erakusten du *jazarrik*. Hona hemen zenbait adibide, komuntzadurarik gabek (a,b,c) eta komuntzaduradunak (d,e):

- (32) a. [Zure anaier] jazarritz, izpiritu Sainduari jazartzen zare (Laph 1859)
- b. [Oraiko minixtro eta deputatuak] guziz jazarri dire Igandeari (Arb *Igand* 71)
- c. Zueri zer-nahi gisetarat jazarriko dena Niri jazarriko da! (Zerb *IxtS* Io 15, 20)
- d. Nere ariman, jazarri behar natzaiote tentazionerik borthitzenei (Jnn *SBi* 80)

22. Hona adibidea osorik: *Nola birundan arbolari Dan segitzen itzala, Bakhotxak hala sor-lekhua Bethi maitha dezala! Anaiak gaituk Eskualdunak, Oraí ere, oxala, Jartzen bagine «Guziak bat» Lehenago bezala!* (Elzb *Po* 200).

e. Gaixtaginak zitzaizkon / Jesusi jazarri (Zby RIEV 1908: 208)

(a) adibidean, datibo komunztadura eragozten duena *Pertsona Kasuaren Muga* (Albizu 2001) dela pentsa daiteke, baina konturatuko zen entzulea (d) adibidean muga berak ez duela datibo komunztadurarik gabeko formarik ekarri.

Hori baino interesgarriagoa da, gure ustez, azpimarratzea datibo komunztadura horren hautazkotasanaren aztarnak datibodun inakusatibo modura jokatzen duenean aurkitzen ditugula nagusiki –goiko adibideetan (32)– eta ez dela hautazkotasan horren aztarnarik datibodun inergatibo moduko konfigurazioa erakusten duenean, ondoko adibideetan bezala:

- (33) a. Debruari jazarri behar dioen eta hura bentzutu behar duen emazte hazkar eta borthitza (MarII 94)  
 b. Etsai bati bezala jazarri darotazu; eta etsaia izan banintz, gogorkiago ezin jazarriko zinarotan (Dv *LEd* 95)  
 c. Frantses gazteak ere izatu zituen beraz tentazioneak, eta jazarri zioten gehienei aski errexxi (Jnn *SBI* 164)

Aditzok absolutibo/datibo alternantziadunak izanik eta datibo-osagarri bitxikoak, *igurikik* ere datibo komunztadurarako joerarik duen begiratu dugu, baina OEHN, behintzat ez dugu halakorik aurkitu. Horretarako arrazoia historikoa izan daiteke: *iguriki* iparraldeko tradiziokoa dela diosku OEhk (IX: 203), XVIII. mendera arte datibodun osagarria erakusten zuela eta ordutik aurrera absolutibodun osagarria orokortu zela, salbuespenak salbuespen –Duvoisin. Hortaz, absolutiboaren erabilera orokortu bazen datibo komunztaduraren galera baino lehenago, ulertzekoa da *igurikik* halako datibo komunztadura gabeak ez erakustea.

Honaino, datibo-osagarri bitxiak absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan. Dena den, ez dugu uste datibo-osagarri bitxi hauek halabeharrez alternantziadun aditzetan agertzen direnik, bai baitira alternantziarik izan gabe ere, datibo osagarri bitxiak hautatzen dituzten aditzak eta komunztaduraren hautazkotasan bera erakusten dutenak, gainera. Ez ditugu hemen banaka-banaka aztertuko, eta bat bakarra aipatuko dugu erakusgarri modura: *oldartu*.

- (34) a. Hortan zen bildotxari / oldartu otsoa (Zby RIEV 1908, 759)  
 b. Hari zaio deabruari oldartzen ohoin eta ebastaile bat bezala (Lap 117 (V 54))

Aurrerago ikusi beharko da zein diren alternantziadunak izan gabe ere, komunztadura galerarako joera dutenak.

### 3. Datibo komunztadura beti zaintzen denean (edo datibo komunztaduraren ezinbestekotasuna)

#### 3.1. Datibo-absolutibo hurrenkeradun inakusatiboak

Goian aztertu ditugun aditzak absolutibo-datibo hurrenkerako inakusatiboak dira. Ondoren dakartzagunek, aldiz, inakusatibo datibodunak izan arren, alderantzizko hurrenkerak dute, datibo-absolutibo hurrenkerak alegia, eta aurrekoek ez bezala hautazko datibo komunztadura gabe, ezinbesteko datibo komunztadura dute. Harrigarria da literatura berean inon ez aurkitzea azken hauen aipamenik eta ezta euren ezin hautsizko datibo komunztaduraren berri.

Guk hemen garatuko ez dugun arren, begi-bistakoa da, Fernándezek (2007), McFaddenek (2004) lanean oinarriturik bereizitako *goi* eta *behe* datiboen artean dagoen asimetria sintaktikoa datibo komunztadurari dagokionez ere berresten dela. Baina utz dezagun hipotesi hau alde batera eta itzul gaitezen gure ildo nagusira.

### 3.1.1. Datibo esperimentatzailekun inakusatiboak

Datibo esperimentatzailekun inakusatiboak aztertuko ditugu lehenik. *Ahantzi* (a), *laket* (b), *gertatu* (c), *gogoratu* (d), *gaitzitu* (e), *damutu* (f) eta *dolutu* (g) aditzak Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) sortatik jaso ditugunak –ikus baita Etxepare (2003). Aditz psikologikoak dira guztiak. Esperimentatzaile theta-rola da datibo argumentua, eta estimulua absolutibo argumentua.

- (35) a. Eta Jainkoari etzaio ahantziko (Dv *Lab* 10)  
 b. Huna zer zaitan niri gehienik laket Eskuaran (Arb *Igand* 12)  
 c. Niri orobat gerthaturen othe zait (Dv *LEd* 156)  
 d. Hemen gogoratzen ahal zaio norbeiti (Jnn *SBi* 44)  
 e. Debruari gaitzitu bide zitzaizkon solhas horiek (Jnn *SBi* 123)  
 f. Lopezen adixkider handizki damutu zitzaioten (Laph 90)  
 g. Hurren laur laudener dolutzen zaie ere (Gy 203)

Bertan jasotzen ditugun adibideak, ikusten denez, datibo komunztadura ez zaintzeko joera duten idazle lapurtarrenak dira, Duvoisin, Arbelbide, Joanategi eta abarrenak, eta ez da batean ere komunztadura urratzen duen datiborik. Hona dakartzagun adibideak, jakina, guk geuk aukeratu ditugu, eta hipotesiaren arabera aukeraketa interesatua dela pentsa lezake irakurleak, baina ez da hala. Irakurle mesfidatiak jo besterik ez dauka testuetara konturatzeko halako aditzekin batera datibo komunztadura zaintzea ez dela salbuespena legea baino, eta ziur gara, hori testuetan ez ezik, ahozko testigantzetan ere jaso ahal izango da.

Jakina, lapurteraren testigantzak jasotzeak ez du esan nahi galera jasaten duten beste euskalki batzuetan ere antzera gertatzen ez denik. Behe-nafarreraren ondokoetan *gertatu* (a), *laket* (b), eta *gogoratu* (d) aditzez gain, *iruditu* (c) ere agertzen da, eta guztietan zaintzen da komunztadura:

- (36) a. Gorenaz ere neri gertatu zaidana zaio gertatuko hari ere: ase baino gehiago, gosea haunditu irakurtze laster horrekin (Xa *Odol* 11)  
 b. Bethi hola gerthatzen da: deusik galtzeko ez duenari lakhet zaio buruzagiz eta gobernamenduz khanbiatzea (Elisb *Fram* 132)  
 c. Ixildura labur hau onartze bat iduri zakon gizon hanpurutsuari, eta kantitu gabe urbiltzen zaio nexkatoari soberaxko, futxo (Zub 106)  
 d. To, gogoratzen zaio bati: guazen Zirkorat, han yostatuko gituk (Zub 111)

Zubereraz ere datibo-esperimentatzailekun inakusatiboetan datibo komunztadura zaintzeko joera garbia dago:

- (37) a. Inhurriari kukusoa txipiño iduri ziozu; haren aldiand mendi bat dela uste dizu (Arch *Fab* 183)  
 b. Barbaro haier huna gitia behar ziek aren dolütü (*Xarlem* 755)

Ez ditugu orain aditz guztiak banaka-banaka begiratu, baina hemen bildutakoa laburra izanik ere, erakusgarri nahikoa sendoa delakoan gaude<sup>23</sup>. Asimetria egon badago, beraz, eta

23. Salbuespen bat bakarra aurkitu dugu Tartasen lanean *gertatu* aditzarekin: *Hala gertatu zen bost birjina zuhurrer, hek bere ohoria jinkoagati begiraturik, esposaren banketian honki jin izan ziren* (Tt Onsa 77). Kasu honetan, Jon Ortiz de Urbina ohartarazten gaituenez, komunztadurarik eza datibo argumentua zehazgabea izateari egotz dakiok –ikus honi dagokionez, Etxepare eta Oihartzabal (2008a,b) edota Fernández & Ortiz de Urbina (2008a).

ukaezina da komunztadurari begira. Dena den, komunztadura beti zaintzen duten datiboak ez dira bakarrik datibo-esperimentatzailekun inakusatibokoak. Begiratu bestela.

### 3.1.2. Jabetza *besterenezin* edo *inalienableko* datiboak, interes datiboak eta datibo etikoak<sup>24</sup>

Ezinbesteko komunztadura, gure hipotesiaren arabera, bestelako datiboek ere eragiten dute: jabetza *besterenezin* edo *inalienablea* adierazten duten datiboek (a) eta (b), interes datiboek (c) edota datibo etikoek –ikus Etxepare (2003) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2010).

- (38) a. Mailez-mail gorphutz guzia kaskaka uspeltzen zaio martir berri huni (Arb *Ignd* 87)  
 b. Hala ere, diren bezain bihotz hunkigarri izana gatik aita, ama edo emaztearen alderako hitzak, aita bati bere ume ta haurretan zaio bihotza osoki guritzen, arrailtzen edo eritzen (Xa *Odol* 13)  
 c. Gaizoari ordian argitzen zaio adimendua, eta dena ulertzen (Zub 39)

Kontuan izan, datibo-esperimentatzaileak ez bezala, azken datibo hauek ez direla aditzen euren berezko argumentuak, ez bada nolabait gaineratutakoak. Diferentzia hau izanagatik ere, ez dugu espero datibo komunztadurari begira, ezberdin jokaterik. Azterketa zehatzago baten zain, gure hipotesiaren arabera, halako datiboek beti zainduko dute komunztadura.

Gainerakoan, ez ditugu datibo hauek ondokookin nahasi behar. Lehen adibidea Gèzeri (1873: 26) zor diogu, datibo komunztadura galerari buruzko euskal gramatikaren aipamen goiztiarrene-tako batean; bigarrena Tartasena da. Konpara itzazue Laphitzen hirugarren adibidearekin.

- (39) a. Jatia gizounari beharrezco da  
 b. Herio terrible hori, izigarri da mundu guzier handier, eta xipier, iustoer, eta iniustoer (Tt *Onsa* 147)  
 c. Arrats ontsa zait eni, dio senharrak (Laph 53)

(c) adibideak komunztadura erakusten du, (a) eta (b) adibideek ez bezala. Halako datiboak erraz ordezkara daitezke destinatibo postposizioekin, adibidez, *jatea gizonarentzat beharrezkoa da* –eta emakumeontzat ere bai, bide batez esanda. Igoera gertatuz gero, (c) adibideen modukoak espero genitzake, hau da, datibodun adibideak eta datibo komunztaduradunak, gainera. (b,c) adibideetan, datiboa egon badago, nahiz eta komunztaduragabea den. Halakoetan, litekeena da besterik gabe datiboa ez igotzea, eta horregatik ez eragitea komunztadurarik. Hortaz, antzeko adibideetan datibo komunztaduraren hautazkotasuna da aurkitzea espero duguna.

Antzera esan daiteke baita ondokoez ere. Duvoisininak dira guztiak:

- (40) a. Zure manamenduetan alhatuko dut gogoa, eta zure bideei begira egonen naiz (Dv Ps 118, 15 –KG–)  
 b. Ene populua ene itzulpenari begira egonen zaio (Dv Os 11, 7 –KG–)  
 c. begira egon nintzaioen, hegalak atheratuak izan zatzaizkoeneraino; eta jaiki zen lurretik, eta gizona bezala oinen gainera jarri zen, eta eman zioten gizon-bihotza (Dv Dan 7, 4 –KG–)

24. Argigarriak izan dira eta ezinbestekoak Jon Ortiz de Urbinaeren iruzkinak atal honen garapenean. Eskerrak eman nahi dizkiogu horregatik.

(a) adibideak datiboa bera erakusten du eta komunztadurarik ez; (b) adibideak datibo bera ez ezik, datibo komunztadura ere; (c) adibideak, azkenik, ez du datiboa erakusten, baina bai datibo komunztadura bera. Kasuistika osoa da, beraz, adibide hauek erakusten dutena. Alabaina, halakoak ez dira gure iritziz, ipar-ekialdeko idazleengan bakarrik jaso daitezkeen adibideak. Hemen datibo komunztadura zaintzea ala ez, ez dagokio, gure ustez, hautu dialektal bati, eta hortaz, euskaraz nonahi aurkitu ahal izango ditu gure irakurleak.<sup>25</sup>

### 3.2. Araziak

Egitura arazleak aztertzen direnean, bi dira komunztadurari dagokionez nabarmendu daitezkeen alderdiak. Bata datibodun araziak eragiten duen komunztadurari dagokio, eta hori da, hain zuzen, orain nabarmendu nahi dugun alderdia. Izan ere, datibodun araziak komunztadura inoiz urratzen ez dutelako hipotesia da gurea. Hau da, datibo komunztaduraren hautazkotasuna erakusten duten euskalkietan eta egileengan, araziaren datibo komunztadura zaindu egiten dela uste dugu, eta ez dugu, hortaz, espero eremu honetan hautazkotasunaren aztarnarik aurkitzea. Eta beste alderdia honen ondorioz sortzen da: egitura arazlean ager litekeen beste edozein datibo sintagmak –arazia ez denak, alegia– ezinezkoa izango du komunztadura eragitea, bi datibo komunztadura (sintaktiko) ezinezkoak direlako adizki bakarrean, Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiak (1989) aspaldi samar eta Ortiz de Urbinak (2003) oraintsu erakutsi diguten bezala<sup>26</sup>. Bi datibo lehiatuz gero komunztadura jasotzearen, bakar batek du irabaztekoa, araziak alegia, eta bigarrena komunztadurari gabea izatera kondenatua dago: honetan ez dago hizkeren arteko aldakortasunik, honetan batasun erabatekoa dago.

Guk egitura arazleetan, lehen alderdiari baino ez diogu begiratuko oraingo honetan, behintzat, hau da, datibodun araziak sistematikoki datibo komunztadura zaintzen duela erakutsiko dugu ondoko adibideetan. Horretarako, bereziki komunztadura galtzeko joera duten hizkera eta egiletara jo besterik ez dago.

25. Ildo beretik, *erne* (*egon*) predikatua ere aipa dezakegu. Inesiboa datiboarekin alternantzia erakusten duen predikatua da *erne* (*egon*) –Fernández eta Ortiz de Urbina (2010). Datiboa ageri den kasuetan, bietara agertzen da aditz laguntzailea datibo komunztadurari gabe (a) eta datibo komunztadurarekin batera (b). Inesibo klasikoa da (c) adibideak dakarrena.

- (i) a. Ez dut uste ihiztaria erneago dagoen ihiziari, nola Jaun hura Eskualdun beilarrien hitz bakhotxari (Arb *Igand* 8)
- b. Eta bere aldetik, Mimi, / saguer baiño erneago zagokion gasnari (Gy 120)
- c. Ago beraz bethi erne hitz haukien gañean (EZ *Man* I 137)

26. Ez dugu *eman* bezalako datibodun iragankorretan bakarrik pentsatu behar: *Salgai nuen landa Mikel salerazi didate gurasoek [niri]* (Ortiz de Urbina 2003: 602); baita *itxaron* edota *begiratu* alternantziadunetan ere, datibodun osagarria erakusten dutenean: *anaiari itxaronerazi didate* (Ortiz de Urbina 2003: 602). Era berean, Ortiz de Urbinak ere halakorik ez dakar eta gaiari buruzko literaturan ez dugu honen aipamenik aurkitu, baina ikusi beharko litzateke *joan* bezalako datibodun inakusatiboetan, arazia absolutiboarekin markatzeko joera duten hizkeretan, ipar-ekialdekoetan bereziki, ea zer gertatuko litzatekeen *Anek Jon Kattalini joan arazi* bezalako perpausetan: *du* behar luke ala *dio*? Printzipioz hemen ez guke izango datibo bien arteko komunztadura lehia eta edozein modutan ere, *du* datibogabea espero genezake guk. Ikusi beharko hala den, eta hala izanez gero zergatik.



- (41) a. Aita, amak, erran araz diozozute zuen haurrei eta sehieri aditu dutena (Arb *Igand* 186)  
 b. Ez da halere aski goiz jaiki gure jauna, eta ez deie jandarme aski laster lana egin arazi (HU *ZeZ* 128)  
 c. Inaziok, hitzik erran gabe, Calistori eta Caserori soineko ilhun bat har arazi zioten (Laph 85)  
 d. Iguzkia yeikitzen abiatu zenean, Madama Elisabetek begiak altxa arazi ziozkan erreginari zeruetako hedoi hori hori, ederki doratuak zireneri (Elsb *Fram* 100)  
 e. Harerazten zaio aberiari jenziana zañetik erhaüstürik untza laürden baten erdia (Ip *Dial* 56)  
 f. Anaia zaharrenak guzien izenean erregeari jakin arazi zion, orok nahiago zutela hil Jaunaren legea hautsi baino (Zerb *IxtS* 76)  
 g. Duela urte pare bat, Mattin kusiarri bertsu batzu molda arazi niozkan, (Xa *Odol* 273)

Adibide hauetan, aditz datibodun iragankorrak *-erran* (a)–, iragankor soilak *-hartu* (c,e), *al-txatu* (d), *moldatau* (g)–, inergatiboak *-lan egin* (b), eta guztietan araziak datibo komunztadura zaintzen du. (d) adibide bitxia ere horren adierazgarri: bertan bi datibo agertzen zaizkigu, bata arazia, komunztadura eragiten duena, eta bestea *leku-datiboa* dirudiena, komunztadurarik eragiten ez duena beraz.

#### 4. Datibo komunztadura inoiz zaintzen ez denean: datibo-postposizioak, datibo-adjunktuak

Bada, heldu gara azkenera. Aldagaiaren hirugarren ahora: komunztadura beti zaintzen duten datiboak aztertu ostean, komunztadura inoiz ere zaintzen ez duten datiboak deskubritzea besterik ez zaigu falta. Datibo-postposizioak dira hauek. Goian ere deitura bera erabili dugu, datibo/postposizio alternantziadun aditez jardun dugunean, baina ordukoak osagarriak ziren, oraingo hauek, berriz, adjunktuak. Ortiz de Urbinak (1995: 585), esate batera, bete-betean adjunktutat hartzen dituen Duvoisinen (Dv *Lab* 382) ondokoak dira orain datibo-postposizio hauen erakusgarri:

- (42) a. Errana da orduan halako arbolak lehenago zagoen alde berari landatu behar duela  
 b. Hegoari zagoenak ez duela iphar aldean ongi emanen  
 c. Arbola zer haizeri baitzagoen xertatzean, gero ere haize berari egon behar da

Duvoisinen adibideetan –edo adibide bakarra, segidan datozen esaldiek osatzen baitute–, *landatu* alde batera, lau aldiz aipatzen da *egon* aditza. Orobat, bertan agertzen zaizkigun datibo guztiek lekua adierazten duten adjunktu hutsak dirudite –inesibo postposizioaz ordezkia genitzake zailtasun handirik gabe; *leku-datiboak* deituko diegu. Caminok ere (1997: 375) oso antzeko adibi-deak dakartza aezkerarako *egon* aditzarekin berarekin.

Baina ez dugu honengatik pentsatu behar halakoak direnik leku-datibo guztiak eta ezta nagusiki *egon* aditzarekin aurkitzen direnik –gogoratzea besterik ez dago goian egitura arazlean aipatu dugun *begiratu* aditzarekin batera zetorrena (41f). Badira, halaber, Ortiz de Urbinak berak aipatzen duen *hurbildu* aditzaren modukoak ere. Halako leku-datiboek adlatibo postposizioa ekartzen digute gogora. Begiratu, esate batera, (a) adibidea, bizigabeak dira datibo guztiak, adlatiboduna, aldiz, biziduna.

- (43) a. Zuek ordean hurbildu zarete Siongo mendiari, eta Jainko biziaren hiriari, zeruko Jerusalem, eta asko miletako aingeru multzoaren gana, 23. nausitasuna. (Dv Hebr 12, 22 –KG–)  
 b. Elizatik kanpo dabilana igandetean, ostatuari jarraikitzen da (Arb *Igand* 129)

- c. Ezen haren izenaren gatik abiatu dire bideari, paganoen ganik deusik ez hartuz (Dv 3 Io 1, 7 –KG–)

Etxepare eta Oihartzabalek (2008a) mugimenduzko aditzekin batera jasotzen dituzte halakoak, esate batera *abiatu*<sup>27</sup> bera, *joan* eta *itzuli*.

Ez da halako datiboan aipamenik sarri aurkitzen ez gaiari buruzko literaturan ez dialektologia lanetan. Salbuespen dira gramatikagintzan Ortiz de Urbina (1995), Fernández eta Ortiz de Urbina (2008) eta Etxepare eta Oihartzabal (2008a,b), eta dialektologian, guk dakigula behintzat Camino (1997), gaia xehetasun handiz jasotzen duena, bai ahozko testigantzak ekarriz bai antzeko literatura testigantzen berri emanez. Etxepare eta Oihartzabalen (2008c) mintzagai nagusia izango dira ale honetako euren lanean. Harrigarriro, datibo komunztadura galera erakusten duten hizkeretako testu klasikoak ikusi besterik ez dago halako datibo-postposizioak sarri aurkitzen direla konturatzeko. Guztiak dira, jakina, komunztadurarik gabeak, eta nekez aurkituko ditu gure entzuleak halako datibo-postposizioak komunztadurarekin batera. Honetan bereizten dira beraz datibo/postposizio alternantziadun aditzekin batera agertzen diren datibo-postposizioetatik: haietan komunztadura hautazkoa zen, hauetan, aldiz, sintaktikoki ezinezko –morfologikoki horretarako eragozpenik ez badute ere.

Ez dira, baina, leku-datiboak bakarrik datibo-adjunktuen artean sailka daitezkeenak. Adjinktu hauen modukoak dirudite baita Lafittek (1979: 220) aipatzen dituen ondoko datibodun nominalizazioek ere:

- (44) a. Zahartzeari zuhurtzen ari gira  
b. Sagarrak ontzeari, gure eliza-pestak ez dira urrun

Lafittek dioenez, datiboaren bitartez balio *inchoative ou conditionnelle* adierazten duten aditz izenak dira hauek<sup>28</sup>. Hurbil samarrak dirudite Caminok (1997: 376) jasotako ondokoek ere, bere iritziz denbora eta moduaren antzeko zerbait adierazten dutenak.

- (45) a. Tzakurrekin fateari ta obeki atratzen dira  
b. Ilabetia akabatzeari  
c. Aita ellegatzeari  
d. Uskaraz izateari  
e. Ja ez errateari pues idem

Baita Caminok Belapeirerengandik zubereraz jasotzen duen ondokoak ere:

- (46) Zelüko sü haren agartziari bihotzak piztüt zaitzen eta garrez bethe, orotan erraiteko Jesús-Krist arrapiztüt zela (Bp II, 72)

27. Etxepare eta Oihartzabalek (2008a) jasotzen duten *abiatu* aditzeko adibidean *bideari* da agertzen den datiboa. Susmagarria da *bideari* hau. Baita *abiatu* bera ere, ez baitu, gure arakaketan, behintzat, hauezaz gain, beste inongo erakusgarririk.

28. *Zahartzeari eta sagarrak ontzeari* halaxe itzultzen ditu frantsesera, hurrenez hurren, “aux approches de la vieillesse (lit. au vieillir)” eta “quand les pommes commencent à murir”.

Baina ez gaitzen luza eta oraineko datuei begira diezaiegun jarraian.

## 5. Hiru ahoko aldagaia Ereduzko Prosa Gauren eta erreminta bat: Corsintax

Tradizioak eskaintako datuez gain, datibo komuntadura galerak egungo erabileran duen presentzia ere neurtu nahi izan dugu. Horretarako, *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) corpusa baliatu dugu, 2000tik 2006ra bitarteko liburueta eta prentsako testuak biltzen dituena.

Corpus horren ustiatzeko, jendaurrean estreinakoz gaur aurkeztuko dugun tresna erabili da: *Corsintax*.

### 5.1. *Corsintax*<sup>29</sup>: corpus arakatzaille sintaktikoa

EPG corpusaz orain arte egin den hustuketa eta arakatzale lan sistematikoa, batik bat lexikoari eta hiztegiintzari zuzendua izan da<sup>30</sup>. *Corsintax* erremintarekin, sintaxiaren aldetik interesgarriak diren aztergaien inguruko datuak ere sistematikoki erazteko modua dago.

Oraingoz, aditzen portaerak neurtzen dituzten datuak eskaintzen ditu egindako lehen esperimentuak. Horretarako, corpusari lematizatzailea eta segmentatzailea (besteek “zatitzailea” ere deitua, *chunker* ingelesez) aplikatu zaizkio lehenik, eta ondoren aditz segmentu guztiak multzokatu eta sailkatu dira, ezaugarrien bitartez: segmentuaren burua, paradigma, modalen eta partikulen erabilera, afijazioa eta abar.

Hauek dira arakatzaille sintaktikoaren oraingo datuak:

<input type="checkbox"/> esaldiak	2.182.971
<input type="checkbox"/> testu hitzak	25.106.538
<input type="checkbox"/> segmentuak	16.717.283
<input type="checkbox"/> aditz segmentuak	3.227.734
<input type="checkbox"/> aditz lema desberdinak	4.472

Horrez gain, EPG corpusa ataletan banatuta dago: iturburuaren arabera (liburuak / Herria / Berria), liburuen euskalkia (Ipar / Hego), eta liburuen sorburua (itzulpenak / jatorrizkoak). Azpicorpus horietako bakoitzean aditzek dituzten datuak ere ematen dira.

Gaurkoan, arakatzaille sintaktiko horren emaria beste esperimentu batera egokitu nahi izan dugu: datibo komuntadura galera neurtzea.

### 5.2 Erreferentziako abiapuntua: Leonen *Imitazionea*

Helburua hiru ahoko aldagaia EPGn aztertzea zenez, metodologikoki egokia iritzi genion gure gai honetarako erreferentziako obra izango zen idazlan baten hustuketa erabatekoa aurrez egiteari. Lanak literatur tradiziokoa izan behar zuen, eta datibo komuntaduraren galerak ageri ohi duen ka-

29. *Corsintax* Ametzagaña garatzen ari den prototipoa da. Erabiltzaileen beharrikanak beteko dituen tresna eraginkorra bilaka dadin, lagungarriak zaizkio ikertzaileon ekarpenak eta iradokizunak, eta bereziki ongi etorriak izango dira. Erreminta aski doitua izan bitartean, helbide honetan egongo da prototipoa: <http://weblingua.ametza.com/corsintax/>. Erremintaren nondik norakoez berri gehiago jakin nahi duenak, jo beza webgune horretako “Ohar metodologikoak” deritzen atalera.

30. Ikus, Euskara Institutuaren webgunean (<http://www.ei.ehu.es>) erabilgarri dauden hainbat aplikazio: *Egungo Euskararen Hiztegia*, *Lexikoa Atzo eta Gaur* eta *Hiztegi Batua Euskal Prosan*.

suistika ahalik eta modurik zabalenean jasoko zuena. KGko corpus arakatzailan zenbait aditz galeradunen bilaketa eginda, ohartu ginen bazela obra bat horietako gehienak jasotzen zituena, beste ezeeinek baino gehiago: Leon Leon *Berrizarteren Jesu-Kristoren Imitazionea* (Turnhout, 1929).

Tresna konputazionalak ezagutzeko moduko testua izan zedin, lehenik eta behin hainbat egokitzen egin ziren testuan: esate batera, lematizatzaileak ez ditu *dauzkitzut* edo *othoi* ezagutzen, eta *dizkitzut* eta *otoi* bihurtu genituen sortutako ezkutuko testuan.

Testuari arakatzaila sintaktikoa aplikatuta, datibo komunztaduraren galera jasateko esaldi hau-tagaiak erazi ziren. Horretarako, esaldiok baldintza bi bete behar zituzten: aditz jokatu (*ez ditezen fida, behatzen baitiote*) eta datibo sintagma agerikoa izatea (*nahikunde onari*).

Leonen *Imitazionean* baldintza horiek betetzen dituzten esaldiak 363 dira. Esaldiok eskuz aztertuta eta berezita, hauxe izan zen ondorio orokorra: galerarik gabeko esaldiak 201 ziren (% 55, 37), eta galeradunak 162 (% 44, 63). Zerrendatu genituen aditz guztiak 51 izan ziren, aparteko sail batean utzita *eduki, egon, izan*, eta azken bi horiekin osatutako predikatuak (*erne egon, higuin izan...*). Horietatik, 11 dira aldagaiaren lehen ahoko aditzak; 18 bigarrenekoak, eta 22 hirugarrenekoak. Emaitza horren xehetasunak, txosten honen I. eranskinean topatuko ditu irakurleak<sup>31</sup>.

Erreferentziako obra horren azterketaren ondoren, EPGn arakatzeko sakona eta zehatza burutu ahal izateko ezinbestekoak ziren irizpideak eta parametrizazioa erabaki genituen.

### 5.3 Datibo komunztadura galera Ereduzko Prosa Gaur corpusean

Jopuntu dugun auzia argitze aldera, EPG osoa aintzat hartu baino, haren barruko azpicorpus bat soilik ebatzi genuen interesgarri: *Herria* astekariko testuak, eta Iparraldeko idazleen liburuak. Hurrenez hurren, 206.551 eta 56.354 dira atal horietako testuetan dauden esaldiak.

*Imitazionearen* hustuketak emandako adiztetatik 19 hautatu genituen haien portaera EPGn neurtzeko: *aiher izan, amor eman, behatu, bermatu, bihurtu, fidatu / fida izan, galdatu, galdegin, ihes egin, jarraiki, jarraitu, jazarri, josi, kendu, lotu, ohartu, parekatu, segitu* eta *uko egin*.

Leonen erreferentziako obrarekin lehenago egin bezala, hemen ere esaldi hautagaien erazketa automatikoa egin zen, bestearen irizpide berberetz. Denera, 605 esaldi izan ziren ostera eskuz aztertuta behar izan zirenak.

Txosten honen II. eranskinean, xehatuta daude erazketa horren emaitza nagusienak<sup>32</sup>.

Kasualitate hutsa izan badaiteke ere, Leonenean zein EPGko azpicorpusean antzeko portzenta-jeak ateratzen dira datibo komunztaduraren galera bai/ez aldakortasunari dagokionez: 55,4 vs. 44,6 Leonenean eta 54,7 vs. 45,3 EPGn.

Aditz bakoitzari buruzko datuak aztertuta, zenbaitetan alde handia dago prentsan eta liburuetan egin den erabileraren artean: *aiher izan* prentsan galeraduna, eta liburuetan ez; *Herrian* galerarako joera handiagoa da *galdegin, jarraiki, jazarri, kendu, lotu* edo *uko egin* aditzekin; beste batzuetan *behatu, fidatu, ihes egin, josi, ohartu...*—, aldiz, aski berdintsua da portaera.

31. Are datu xeheagoak daude “Datibo komunztaduraren galera Leonen *Imitazionean*” dokumentu elektronikoa (<http://weblingua.ametza.com/corsintax/LeonImitazionea-dat-kmz.pdf>); aintzat hartutako 363 esaldiak zerrendatzen dira bertan, aditzez aditz multzokatuta eta komunztadura zaintzen duten edo ez berezita.

32. Ñabardura gehiago nahi duenak —adibide guztien erolda, aditz bakoitzaren inguruan multzokatuta— dokumentu elektronikoa honetara jo dezala: “Datibo komunztaduraren galera EPGn” (<http://weblingua.ametza.com/corsintax/EPG-dat-kmz.pdf>).

Datuok arretaz aztertzea beste abagune baterako aproposagoa den arren –gaurkoa amai dezagun–, hona hemen esperimentu honetatik atera ditugun ondorioak, guretzat aski garbiak direnak:

- ❑ Tradiziotik egungora, ez dirudi datibo komunztaduraren galerak behera egin duenik. Gora egin duela esatea –eskura dugunaren arabera– gehiegi litzateke, baina egon, bizi-bizirik dago.
- ❑ Erabat alderantzizko datuak sortzen dituzte prentsako testuek eta liburuetaoek. *Herria* astekarian dat-kmz bai/ez proportzioa 35/65 den bitartean, Ipar idazleen liburuetan 72/28 dugu proportzio beraxe. Oso deigarria eta esanahi handikoa iruditu zaigu desberdintasuna. Garbi dago liburuetan askoz ere gehiago zaintzen dela datibo komunztadura, *Herrian* baino:
  - Oro har, badirudi ahozko hizkeratik gertuago dagoela *Herriako* hizkera, liburuetakoa baino.
  - Askoren ustez komunztadura galera zuzendu beharreko akatsa da, eta pentsatzekoa da zuzenketa moduren bat aplikatzen dela zenbaitetan, idazleek beren buruari, edota argialetxeetako zuzentzaileek egina. Nolanahi ere, zuzentasun nahiaren faktoreak azterketa arduratsua behar duen auzia da, eta oraingoan ez dugu horrelakorik egin.
- ❑ Emaitzaren zifrak liburuetakoa egileen arabera aztertuta –ikus II. eranskina– pentsa liteke liburuetakoa hizkera jasoak baduela zer ikusia komunztadura zaindu beharrarekin. Ildo horretatik, idazlea zenbat eta literatur sisteman integratuago egon, are gehiago zaintzen da datibo komunztadura (Itxaro Borda, Piarres Xarriton...), besteetan baino (Michel Oronoz, Filip Bidart...).

Eta horixe da gutzia gaurkoz. Emandako datuek eta azterketarako moduek gerora ere emaitza berriak ekarriko dituztelakoan gaude. Gerokoak gero.

### Aipamenak

- Albizu, Pablo. 2001. "Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu". In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 49-69.
- Camino, Iñaki. 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. 1989. "Inkorporazioa perpaus kausatiboetan". In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*. Donostia: EHU. 87-119.
- Etxepare, Ricardo. 2003. "Valency and argument structure in the Baque Verb". In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin, Mouton de Gruyter. 363-425.
- Etxepare, Ricardo & Bernat Oihartzabal. 2008a. "Dative structures in standard and north-eastern Basque" *Licensing conditions at the interface. International Encounter at the Summer Courses of the University of the Basque Country*. XXVI Uda-ikastaroak, Donostia, ekainak 23-24.
- Etxepare, Ricardo & Bernat Oihartzabal. 2008b. "Locational datives and dative agreement in the Eastern Dialects of Basque", *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, irailak 18-21.

- Etxepare, Ricardo & Bernat Oihartzabal. 2008c. "Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan", *Al-daketak, aldaerak, bariazioak euskaran eta euskal testugintzan*, IKER, abenduak 12-13an.
- Fernandez, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Fernández, Beatriz. 2007. *High and low datives in Basque bivalent constructions*, eskuizkribua, Rutgers.
- Fernández, Beatriz. 2008. "Quirky dative objects in Basque", *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, irailak 18-21.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2008. "Datibo komunztadura ekialdeko hizkeretan", eskuizkribua, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua.
- Gèze, Louis. 1873. *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin. Suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*. Baiona: Imprimerie de Veuve Lamaignère [Birrarg. 1979. Donostia: Hordago.]
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 1987. "Reestructuring with ARI." *ASJU* 21, 425-452.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (arg.). 2003. *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- McFadden, Thomas. 2004. *The position of morphological case in the derivation: a study on the syntax-morphology interface*, doktorego tesia, University of Pennsylvania.
- Mitxelena, Luis eta Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mounole, Celine. 2008. "Evolution of the transitive verbs in Basque and apparition of datively marked patients", eskuizkribua, UPV/EHU.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. "Datibo komunztaduraren gainean." In R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko Irailak 2-6)*, ASJUren Gehigarriak XXVIII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 579-588.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. "Causatives." In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.). *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 592-607.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. EHU & Kutxa Fundazioa.
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*. <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
- Klasikoen gordailua (KG)*. <http://klasikoak.armiarma.com/>

### I. eranskina: Datibo komunztaduraren galera Leonen Imitazionean

(<http://weblingua.ametza.com/corsintax/LeonImitazionea-dat-kmz.pdf>)

DATU OROKORRAK		
kmz bai	kmz ez	den.
201	162	363
%55,37	% 44,63	% 100

	kmz bai	kmz ez	orr.
<b>1. INOIZ EZ ZAINDU</b>			
abiatu	---	1	2
bermatu	---	11	2
fidatu / fida izan	---	14	3
gogo eman	---	1	3
hil	---	1	3
jarraitu	---	1	4
josi	---	2	4
katzakatu	---	1	4
kendu	---	1	4
parekatu	---	1	4
utzi	---	1	4
<b>2. BATZUETAN ZAINDU</b>			
amor eman	1	1	5
behatu	13	3	5
bihurtu	2	3	6
egin	5	2	6
eman	14	9	7
erakatsi	1	1	7
erakutsi	2	2	8
erran	5	1	8
eskaini	1	2	8
galdatu	2	2	8
iharduki	1	2	9
ihes egin	2	3	9
jarraiki	16	6	9
jazarri	2	2	10
lotu	1	6	10
mendutu / mendu izan	1	1	11
ohartu	1	6	11
uko egin	23	6	11
<b>3. BETI ZAINDU</b>			
ageri	4	---	13
altxatu	1	---	13
atxiki	17	---	13
baliatu	1	---	14
barkatu	3	---	14
dohaindu	1	---	15
etorri	3	---	15
gertatu	1	---	15
hel egin	1	---	15
hetsi	1	---	15
hurbildu	1	---	15
ideki	1	---	15
igorri	1	---	15
ihardetsi	2	---	16
itzuli	1	---	16
joan	18	---	16
kausitu	1	---	17
koropilotu	1	---	17
manatu	1	---	17
mintzatu	1	---	17
oldartu	1	---	18
sortu	1	---	18

	kmz bai	kmz ez	orr.
<b>«egon» &amp; predikatuak</b>			
egon	1	30	19
aiher egon	---	4	21
beha egon	---	1	21
erne egon	---	3	21
hurbil egon	---	1	21
so egon	---	2	21
<b>«izan» &amp; predikatuak</b>			
izan	9	4	22
aiher izan	---	2	22
ari izan	---	1	22
aski izan	3	---	23
atsegabe izan	1	---	23
atsegin izan	1	---	23
berdintsu izan	1	---	23
esker izan	---	1	23
gaitz izan	2	---	23
gaitzi izan	2	---	23
gaizki izan	1	---	23
gor izan	---	1	24
gozo izan	1	---	24
gozoa izan	1	---	24
hastio izan	1	---	24
higuin izan	3	---	24
iduri izan	1	---	24
laket izan	8	---	24
mentura izan	1	---	25
mintzo izan	2	2	25
nagusi izan	1	10	25
on izan	1	---	26
poxelu izan	1	1	26
zor izan	3	1	26
<b>«eduki»</b>			
eduki	---	5	27

II. eranskina: Datibo komunztaduraren galera EPGn  
(<http://weblingua.ametza.com/corsintax/EPG-dat-kmz.pdf>).

DATIBO KOMUNZTADURA		
	prentsa	liburuak
<b>bai</b>	98 % 34,51	231 % 71,96
<b>ez</b>	186 % 65,49	90 % 28,04

DATU OROKORRAK		
kmz bai	kmz ez	den.
331	274	605
%54,71	% 45,29	% 100
aintzat hartutako esaldiak		
prentsa	liburuak	
284	321	
%46,94	% 53,06	

ADITZEZ ADITZ									
	denera			Herria			liburuak		
	kmz bai	kmz ez	portz.	kmz bai	kmz ez	portz.	kmz bai	kmz ez	portz.
aiher izan	3	4	57,14	---	4	100,00	3	---	0,00
amor eman	2	2	50,00	2	2	50,00	---	---	---
behatu	33	7	17,50	9	3	25,00	24	4	14,29
bermatu	---	2	100,00	---	1	100,00	---	1	100,00
bihurtu	4	11	73,33	2	11	84,62	2	---	0,00
fidatu / fida izan	1	10	90,91	---	5	100,00	1	5	83,33
galdatu	50	4	7,41	36	4	10,00	14	---	0,00
galdegin	52	12	18,75	16	11	40,74	36	1	2,70
ihes egin	4	5	55,56	2	2	50,00	2	3	60,00
jarraiki	57	19	25,00	---	14	100,00	57	5	8,06
jarraitu	1	---	0,00	---	---	---	1	---	0,00
jazarri	12	8	40,00	3	5	62,50	9	3	25,00
josi	---	5	100,00	---	3	100,00	---	2	100,00
kendu	24	3	11,11	9	3	25,00	15	---	0,00
lotu	45	128	73,99	9	93	91,18	36	35	49,30
ohartu	4	35	89,74	1	11	91,67	3	24	88,89
parekatu	---	1	100,00	---	---	---	---	1	100,00
segitu	1	1	50,00	---	1	100,00	1	---	0,00
uko egin	38	18	32,14	10	13	56,52	28	5	15,15

dat kmz galera liburuetako egileen arabera	
kopurua	egilea
26	P. Aintziart
15	M. Oronoz
14	P. Xarriton
9	X. Arbelbide
6	M. Oxandabaratz
5	F. Bidart
5	J.B. Dirassar
3	E. Touyarou
3	A. Aintziburu / J.B. Ftxarren
2	I. Borda
1	E. Bidegain
0	A. Arkotxa
0	D. Landart

esaldi kopurualiburuuetako egileen arabera	
kopurua	egilea
115	P. Xarriton
52	P. Aintziart
27	E. Touyarou
22	I. Borda
18	A. Aintziburu / J.B. Ftxarren
17	E. Bidegain
15	X. Arbelbide
15	M. Oronoz
13	J.B. Dirassar
9	M. Oxandabaratz
7	F. Bidart
7	A. Arkotxa
4	D. Landart

dat kmz galeraliburuuetako egileen arabera	
portzen.	egilea
% 100,00	M. Oronoz
% 71,42	F. Bidart
% 66,66	M.Oxandabaratz
% 60,00	X. Arbelbide
% 50,00	P. Aintziart
% 38,46	J.B. Dirassar
% 16,66	A. Aintziburu / J.B. Ftxarren
% 12,17	P. Xarriton
% 11,11	E. Touyarou
% 9,09	I. Borda
% 5,88	E. Bidegain
% 0,00	A. Arkotxa
% 0,00	D. Landart